



**25/2002 GOMENDIOA, EKAINAREN 11KOA, EUSKO JAURLARITZAREN LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILARI EGINA, PRESA BATEKO OBREN ONDORIOZ IRIN-ERROTA BATI ERAGINDAKO KALTEENGATIK ONDAREZKO ERANTZUKIZUNAREN ERREKLAMAZIOA ESPRESUKI EBATZ DEZAN.**

**26/2002 GOMENDIOA, EKAINAREN 11KOA, EUSKO JAURLARITZAREN LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILARI EGINA, GIPUZKOAKO UREN PARTZUERGOARI HORNIKETARAKO APROBETXAMENDU HIDRAULIKOA EMATEKO EBAZPENEAN LEHENDIK DAUDEN BESTE APROBETXAMENDU BATZUEI ERAGITEN ZAIZKIEN GAITZ-KALTEAK KONTUAN HAR DITZAN.**

### **Aurrekariak**

1. Kexa Eusko Jaurlaritzaren Ur Zuzendaritzatik -orduan Garraio eta Herri Lanen Sailean zegoen- herritar honek bere ondarean jasandako kalteengatik aurkeztutako erreklamazioari erantzun ez zitzaiolako etorri zen..

Zehazki, kaltea zen irin-errota baten erabilpenerako baliatzen diren herri jabari hidrauliko baten 100 litro ur/segundoko aprobetxamendurako duen eskubidea baldintza egokietan gauzatu ezina eta errota horren inguruetan presa bat eraiki eta betetzeko obretatik etorritako beste gaitz batzuk ziren.

Herritarrak alegatzen zuen ez duela dagokion erabilpen partikularrik, Ibai-Eder presa eraikitzeagatik eta Gipuzkoako Uren Partzuergoak eskatu zuen aprobetxamenduagatik -450 litro/segundotan zenbakituta dago, eta hainbat herri hornitzeko erreserbatzen da-. Aprobetxamendu horrek, ur emari ekologikoarekin batera, emakidaz eskuratutako emaria erabiltzea eragotzi du, 1989an presa eraiki zenetik gaur arte.

2. Herri lan hori aurreikusita zegoen Gipuzkoako Baliabide Hidraulikoak Araupetu eta Erabiltzeko Planean, Urola erdiko eta garaiko herriak urez hornitzeko. Presa eta uharka Confederación Hidráulica del Norte delakoak eskatuta eraiki ziren, orduan baliabide hidrauliko horien administrazioaz eta kontrolaz arduratzen zen ibarreko organismoa baitzen. Proiektu hori egiteko desjabetu behar izan ziren ondare eta eskubideen ondoretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak nahitaez desjabetzeko administrazioko espedientea izapidetu zuen. Ondoren, uztailaren 8ko 1.551/1994 EDren bidez, erkidego barruko



ibarretako baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoak Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatu ziren eta Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzak ibarreko organismotik etorritako ahalmenak hartu zituen. Uren Legearen Testu Berregina onesten duen uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegileak esleitzen dituen ahalmen horiek izatezkoak dira.

3. Azpiegitura hidrauliko hori jarri zenetik bere irin-errotaren industria jardueran jasaten zuen kaltearen ondorioz, interesatuak esku hartu duten herri administrazio eta organismo desberdinei kalte-ordaina erreklamatu die, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzari eta Gipuzkoako Uren Partzuergoari, alegia.

Lehenengo erreklamazioa Gipuzkoako Foru Aldundian jarri zuen, 1992an, eta eskatzaileari emakidaren titularitatearen eta kaltearen balorazioaren gaineko behar zen dokumentazioa aurkezteko eskatzen zioten hainbat txosten ekarri zuen. Interesatuak bereari eutsiz idatziak aurkezten jarraitu arren, Aldundiak ez zuen inolako ebazpenik eman haren asmoaren gainean. Azkenik, Obra Hidraulikoen eta Hirigintzaren Foru Sailak ebatzi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak ezin ziola eskariari jaramonik egin, ez zelako uharkaren sustatzailea, ez eta ondoriozko aprobetxamendu hidraulikoaren emakidaduna ere. Esan zioten idatzia Ibarreko Organismoari aurkeztu behar ziola, hau da, Eusko Jaurlaritzaren Ur Zuzendaritzari.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren Ur Zuzendaritzari informazio eskaria luzatu zion, zeukan ur emariaren aprobetxamenduaren eskubidea kentzekotan, erantzulea zein erakunde zen galdetuz. Idatziari erantzuteko, Ur Zuzendaritzak txosten bat egin zuen, non aprobetxamendu hidrauliko baten emakidari beste aprobetxamendu batek ukitzen dionean Uren Legeak zer kalte-ordain araubide aurreikusten zuen esaten baitzuen, eta ondorioztatu zuen erantzulea emakidaren onuradun ateratzen zen subjektua izango zela, kasu honetan, Gipuzkoako Uren Partzuergoa.

Ondoren, kalteengatik erreklamazioa aurkeztu du, bai Gipuzkoako Uren Partzuergoan bai Eusko Jaurlaritzaren Ur Zuzendaritzan.

Eusko Jaurlaritzaren Ur Zuzendaritza gaur egun administrazioeko espediente bat izapidetzen ari da, ondarezko erantzukizun terminoetan. Erakunde honek dakiela, azkeneko izapidea frogetarako epea zabaldu dela izan da, eta kexagileak jada erantzun dio. Horren bidez, herri zerbitzuen



funtzionamenduaren ondoriozko balizko administrazio erantzukizuna zehaztu nahi da, Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 139. artikulua dionaren haritik.

Orain arte, ordea, interesatuak ez du bere nahi horri dagokion azken erantzunik jaso.

Kalte-ordaina lortzeko asmoaren edukia idatzi eta alegazio desberdinetan definituta geratu da. Horietan adierazten du kalte-ordaina jasotzeko eskubidea duela, presaren obra egiteak sortu dizkion gaitz eta kalteengatik (errotaren garbiketako eta hondarrez husteko gastuak, presa egin eta betetzeko frogak egiten ziren bitartean), eta emandako ur emariaren galeraren ondorioz emandako aprobetxamenduaz baliatu ezinagatik (irin-errotaren jardueraren industriako mozkinaren galerak), baita administrazioarekin egindako gestioen ondoriozko beste gastu batzuegatik ere.

4. Bestalde, erakunde hori aurkeztutako dokumentaziotik, bereziki Ur Zuzendaritzaren txostenetik, ondorioztatzen da Zuzendaritza horrek Ibai-Eder uharkari aurreikusitako aprobetxamenduaren araubidea zehaztu gabe eta presaren obrak Gipuzkoako Uren Partzuergora eskualdatzeke dagoela oraindik.

Era berean, herriak urez hornitzeko aprobetxamendua arautu behar duten baldintzetan, ibarreko organismoak aprobetxamenduen bateragarritasuna zehaztu beharko luke edo, bestela, bateraezinak izatekotan, aprobetxamendua ordezkatu eta eragiten diren kalteengatik onuraren kargurako konpentsazioak zeintzuk liratekeen ezarriko litzateke.

Asmo horrekin, emakida izapidetzean, Ur Zuzendaritzak ahaleginak egin ditu Gipuzkoako Uren Partzuergoa, Ibai-Eder presaren emakidaren onuraduna izanik, beste aprobetxamenduaren titularrarekin akordioaren batera irits zedin. Konponbide konbentzional hau orain arte gauzatzerik izan ez denez, emakidaren araubidea ezartzeko geratzen da.

Informazio hori eta kexaren sustatzaileak alegatutako gainerako zertzeladak ikusi eta guztiaren edukiak aztertu ondoren, ondoko gogoeta hauek helarazi genituen:



## Gogoetak

1. Espediente honen xedea Ur Zuzendaritzaren eta, izatekotan, esku hartzen duten beste herri organismo batzuen jarduera zehaztea da, irin-errota erabiltzeko 100 litro/segundoko aprobetxamenduaren titularrak aurkeztutako gaitz eta kalteen erreklamazioari dagokionez, Ibai-Eder presaren eraikuntzak eta erabilpenak bere ondarean eragindakoengatik.

Horretarako kexagileak jasandako kalteengatik ordain diezaioten duen asmo horren oinarri juridikoa zein den zehaztea komeni da. Batetik, alegatutako kalteen balizko ondare erantzukizuna aztertu behar da, ematen duen herri zerbitzuaren funtzionamendutik etortzekotan, eta zein administraziori dagokion. Beste alde batetik, interesatuaren kexa-arrazoi nagusia herri jabari hidraulikoaren gainean duen erabilpen partikularra gauzatzea da, eta Ibai-Eder uharkaren eraikuntzak eta Gipuzkoako Uren Partzuergoari horniketarako emandako aprobetxamenduak sortutako murrizketen ondorioak.

Gai hau alboratuta, Gipuzkoako Foru Aldundia alegatutako kaltearen zergatian inputatuta ez dagoen zehaztu behar dugu. Herri Lan eta Hirigintzako Foru Sailak aurkeztutako txostenek diotenez, Aldundiak obra egiteko behar ziren ondasunak eta eskubideak desjabetu eta garai hartan obraren titularrak zen Confederación Hidrográfica del Norte delakoaren eskuera jarri besterik ez zuen egin. Horrela, aurkeztutako informazioetan ageri den bezala, ondasunak eta aprobetxamenduaren eskubidea ez ziren nahitaez desjabetu, proiektuaren okupazioaren aktek ez baitzuten eraginik izan aprobetxamendu hidraulikoaren jabetzan eta administrazioko emakidan. Horren haritik, Konfederazioak berak, obrak amaitu ondoren, aprobetxamendua oraingo titularraren eskuetara aldatu zuen, 1993ko ebazpenaren bidez, eskualdaketa hori 1988ko abenduan eskatu zitzaion arren.

2. Kexagileak kalteengatik ordain dakion alegatutako kontuetako bat garatuz, Administrazioaren ondare erantzukizuneko araua bere baitan hartzen duen lege esparrua azalduko dugu.

Konstituzioak zera dio 106.2 artikuluan: herritarrek, halabeharrezko egoerak salbuetsiz, beren ondasun eta eskubideetako edozeinetan jasaten duten lesio ororen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutela, betiere lesioa herri-zerbitzuen jardueraren ondorioz gertatu bada. Araubide hori Konstituzioaren aurreko beste arau batzuetan jasota zetorren jada, eta Herri Administrazioen Araubide



Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen bidez - azaroaren 26koa- garatu da. Xedapen arautzaile horren arabera, partikularrek beren ondasun eta eskubideetako edozeinetan lesiorik jasanez gero, herri-administrazioetatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dute, halabeharrezko egoerak salbuetsiz, betiere lesioa herri-zerbitzuen ohiko edo ohiz kanpoko jardueraren ondorioz jasan bada.

Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea sortu dela egiaztatu ahal izateko exijitzen diren betekizunak legearen testutik beretik ondorioztatzen dira, baita Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia ugaritik ere. Hartara, pertsona bati edo pertsona multzo bati begira, banaka eta dirutan ebaluatzeko moduko kaltea edo galera benetan gertatu dela egiaztatu behar da; kexagileak jasandako ondarezko kaltea edo lesioa herri-zerbitzuen ohiko edo ohiz kanpoko jarduerak eragin duela, alegia, jarduera hori izan dela kaltearen kausa edo ondore zuzena, berehalakoa eta eksklusiboa, kausazko lotura aldaraz lezakeen elementu arrotzik tartekatu gabe, halabeharrezko arrazoirik gabe; eta kexagileak bere jarrerarengatik bere senez eragindako kalterik jasateko behar juridikorik ez duela. Halaber, beste hau ere exijitzen da: gertakariak jazo zirenetik urtebete igaro delako, erreklamatzeko eskubidea iraungita ez egotea.

Konstituzioak finkatzen duen ondare erantzukizunaren araubidea objektiboa edo emaitzazkoa da, eta ez dauka zerikusirik herri-zerbitzuen jardueran izandako inongo erru edo axolagabekeriaren zein omisioren inolako beharrekin. Horregatik, administrazioako organoak erreklamazioko eskariari baiezkota erantzun beharko dio, baldin eta herri-zerbitzuen ohiko edo ohiz kanpoko jardueraren eta eragindako lesioaren artean kausalitate-lotura dagoela egiaztatzen bada.

Herritarrek ez daukate zertan jasan administrazioaren jardueraren ondoriozko lesio edo kalterik. Horrexegatik sortu zen administrazioen erantzukizuna, Zuzenbide Estatuaren berezko bermeen artean. Izan ere, administrazioaren jarduerak, besteak beste, denen interesa lortzen saiatu behar baitu.

3. Eskuartean daukagun kasuan, zera argitu behar da: ea kexagileak errotan jasan zuen kaltea herritarrak urez hornitzeko herri zerbitzuaren funtzionamenduaren ondorioz eragin zen (presa eta uharkaren obra egiteko) ala, ordea, Administrazioaren funtzionamenduari zerikusirik ez duen beste edozeri edo bestelako kontratuzko loturaren bati egotzi behar zaion.



Azaldutako egitatei dagokienez, ikusten da kexagileak alegatutako kalteek jatorri desberdina dutela. Batzuk obren egintzaren ondoriozkoak dira eta beste batzuk, ordea, kontratu edo emakidazko harremanaren markotik datorren araubide juridikoarenak. Bigarren kontu hau geroago aztertuko dugu.

Hartara, ondare erantzukizunaren arabera, aipatutako herri zerbitzua emateko egin diren herri-azpiegituren obretatik datozen kalteak bakarrik ebatzi behar dira, Gipuzkoako Uren Partzuergoaren aprobetxamendu hidraulikoa hasten den arte.

Hara bada, alegatutako kalteen multzotik, obren egintzarengatik zeintzuk etorri ziren hartu behar dugu kontuan, obren Administrazio titularrari egotzi ahal izateko.

Kexagileak alegatzen duen kaltea administrazioaren erantzukizunari leporatu ahal izateko, kalte hori izatezkoa, ekonomikoki ebaluatzeko modukoa eta banakakoa izango da.

Izatezko, egiazko eta banakoen arabera zehazteko kalteen artean sartuko lirateke presaren obrak egiten ziren bitartean eta ondoren presa betetzeko egin ziren frogetan sortutako gastuak, eta errotaren presaren buruan eta Antza-Sora errekaostaren ubidean jarritako hondakin eta gainerako materialek eragindakoak. Hau da, presaren obrak gauzatzetik, presa betetzetik etorri eta kexagilearen ondareari eragin zioten kalte guztiak.

Era berean, errotak izandako ur horniketa arazoak ere obraren titularrari egotzi ahal izango litzaizkioke -bere eskubidea gauzatzeko aukerarik ezaren ondorioz-, presa egiten amaitu zenetik herrien horniketarako xedatutako Partzuergoaren aprobetxamendua hasi arte, eta hori, espedientean ikusten den informazioarengatik, 1994ra arte izan liteke.

Laguntza juridikoaren gastuei edo erreklamazioaren ondoriozko gastuei dagokienez, kexagileak bere borondatez bere gain hartutako gastuak ezestea da justizia epaitegien irizpidea, ez baitira administrazioaren aurrean esku hartzeko edo erreklamazioak egiteko beharrezkoak.

Balizko, ziurtasunik gabeko edo badaezpadakotzat jotako itxaropenengatik ez da, inola ere, kalte-ordainik jasotzen. Hala irizten dio Epaitegi Gorenak hainbat



epaitan -besteak beste, 1993ko urriaren 18ko eta 1995eko otsailaren 11ko epaiak-, ziurtasunik gabeko kalteak direlako.

Kontuan izanik kexagileak alegatzen duen kalte jarraitua, baita lehenengo erreklamazioa 1992 urtean egin zuela ere, pentsatu behar dugu erreklamazioa egin zen unean kaltea erreklamatzeko epearen barruan zegoela, LRJAPko 142.5 artikulua arabera, izan ere, preskripzioaren ondoretarako, administrazioaren aurrean erreklamazioa egitean eteten da epea, nahiz eta eskumenik gabeko organo batean egin (Epaitegi Gorenaren 1994ko uztailaren 2ko Epaia); edo, bestela, administrazioak alde aurretik izapideak hasten dituenean.

Ildo horretan, aurkeztutako erreklamazioari espresuki erantzun ez zaionez, Eusko Jaurlaritzaren Ur Zuzendaritzak, presaren titular eta obren egintzatik eratorritako betebeharrak bere gain hartu dituen izanik, interesatuaren nahia baietsiz ebatzi beharko du auzia, presa egiteko obrek eta betetzeko frogak zuzenean sortutako kalteengatik ordainduz, aurretiaz -benetako kalte ebaluagarri eta banaka zehaztutakoen arabera- finkatzen den beste.

4. Kexagileak aipatzen duen bigarren kontua -ezin duela gauzatu bere administraziozko emakida- ez da herri-zerbitzuen funtzionamendutik datorren administrazio erantzukizun kasu bat, baizik eta Uren Legeko aprobetxamendu hidraulikoen emakiden araubidean oinarritzen da.

Salatutako kasuan, kaltetuak adierazten du bere emakidazko eskubideei eragiten zaiela eta ondorio ekonomikoak jasan dituela, Ibai-Eder uharka eraiki eta Gipuzkoako Uren Partzuergoak herritarrak hornitzeko ematen duen zerbitzurako aprobetxamenduaren ondoren gertatutako murrizketak direla-eta.

Berak dioenez, arazo honekin zerikusia duten administrazioei aurkeztutako idatzietan, administraziozko emakidak esleitzen dion ur baliabideak ustiatzeko eskubidea murriztuta geratu da, Ibai-Eder uharka eraiki zen unetik.

Ondarezko erantzukizunaren eta emakidazko erantzukizunaren arteko aldea Epaitegi Gorenak ezarri zuen 2001eko maiatzaren 23ko Epaian (RA 2001\5414), non ondokoa argudiatzen duen -emandako aprobetxamendu hidraulikoa murriztu zen kasu batean-: *"no estamos ante un caso de responsabilidad patrimonial por parte de la Administración pública, que sobre la base de un título de atribución, no ha de consistir necesariamente en la*



*existencia de dolo, culpa o negligencia por parte de la Administración, y el título de atribución concurrente se aprecia cuando el sujeto perjudicado no tiene el deber jurídico de soportarlo, pero en el presente caso, estamos ante un supuesto en el que las modernas doctrinas y jurisprudencia más reciente propugna la aproximación y compatibilidad entre la acción de responsabilidad contractual y extracontractual y determina que estamos ante un supuesto que se dirime en el marco de la relación concesional o contractual con la Administración, otorgada para la explotación del aprovechamiento hidráulico al que ha acudido reiteradamente la jurisprudencia de esta Sala (por todas, entre otras, la sentencia de 13 de diciembre de 1985) apoyándose en lo dispuesto en el artículo 123 de la Ley de Expropiación Forzosa, por considerar que la responsabilidad existente se ventila en el ámbito de la concesión y es resuelta, como así sucede, previamente por la Administración hidráulica."*

Aprobetxamendu hidraulikoak ematerakoan oinarrizatz hartzen den kontratuzko araubidea erabiliz zehaztu behar da nori dagokion eskubide horien onuradunek jasaten dituzten gaitz eta kalteengatik ordaintzea, eta zein prozedura dagoen hori erreklamatzeko.

Ur Zuzendaritzaren txostenak dioten bezala, aprobetxamendu berri bat bermatzeko, ur emaria aldatzeko eskubidea du, baina aldaketa horregatik kalte-ordaina eman behar da, 1985ko Uren Legearen 57.3 artikulua zioen bezala (oraingo 59.3 TRLA), eta kalte-ordaina ustiapen berriaren titularrari egotz dakioke.

Emaitza berbera proposatzen zuen 1985eko Uren Legeak jabari hidraulikoaren erabilpena -ustiapen zentzuzkoa bermatzeko- aldi batez mugatzean, aprobetxamendu batzuei besteen aldean kalte egiten zaienean. Kasu horretan - 53.2 artikulua (egungo 55.2 TRLA)- ondoko hau ezartzen zen: "*los titulares beneficiados deberán satisfacer la oportuna indemnización, correspondiendo al Organismo de Cuenca, en defecto de acuerdo, la determinación de la cuantía*".

Lehenagoko testu legegile batek ere, 1879ko ekainaren 13ko Uren Legeak, alegia, 193. artikuluan zioen ubideak desbideratzearen ondorioz kaltetzen ziren aprobetxamendu hidraulikoengatik obra berriaren emakidadunaren konturako kalte-ordainak emango zirela. Xedapen hau aplikatuz, hona hemen zer epai eman zuen Epaitegi Gorenak: "*es el concesionario de la nueva obra, y no el*





*concedente, el directamente obligado a indemnizar a los titulares de los molinos que resultaren perjudicados por la desviación de las aguas de un río o arroyo posteriormente concedida".*

Ildo beretik, 1956ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen gaineko Legeak 121. artikuluan ezarritakoaren arabera, emandako herri zerbitzuetan hirugarrenei eragiten zaizkien kalteak emakidadunak ordainduko ditu, lege beraren 123. artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera.

Legeetako agindu horiek kontuan izanik, zera ondorioztatu behar dugu: bere eskubidea libreki gauzatzea eragozten dion edozer, eta eragin liezazkiokeen kalte guztiak, emakida berriaren onuradunak ordaindu beharko lituzkeela. Kalte-ordaina zenbatekoa izango den ibarreko organismoak erabaki behar du, hau da, Ur Zuzendaritzak, kalteturiko emakidadunaren erreklamazioaren eta -espedientetik ondorioztatzen denez- bere eskubidean jasandako kalteen arabera.

Gipuzkoako Uren Partzuergoaren emakida ez da oraingoz gauzatu, Partzuergoaren eta kexagilearen artean ados jartzeko borondaterik ez dagoelako, ez aprobetxamenduen bateragarritasunari buruz, ezta horietan eragindako kalteei buruz, nahiz eta ados jartzeko eskatu duen Ur Zuzendaritzak berak.

Edonola ere, Ur Zuzendaritzak ebatzi behar du espresuki 1995 urteaz geroztik Gipuzkoako Uren Partzuergoari herritarrak urez hornitzeko izatez eman zitzaion aprobetxamenduak beste aprobetxamenduari -lehendik zegoen irin-errotaren industria erabilpenarena- eragin ahal izan dion kaltearen gainean.

Horretarako Gipuzkoako Uren Partzuergoari aprobetxamendua ematen dion ebazpenean finkatu beharko litzateke zein kalte-ordain dagokion, TRLAren 55.2 eta 59.3 artikuluen arabera.

Era berean, ibarreko organismo horrek erabaki beharko du bi aprobetxamenduak bateragarriak diren ala ez zentzuzko ustiapena bermatzeko. Horretarako, TRLAren 55. artikuluan aurreikusitako ur emariak benetan kontrolatzeko tresnak ezarri beharko ditu.

Bestela, eskubidea iraungi beharko du, erabilpenean lehentasunik gutxiena duen erabilpen partikularra -industria erabilpena- nahitaez desjabetuz,



dagokion Hidrologia Planean desegokia dela onetsi ondoren, TRLAren 60.2 artikulua 53.1 artikularen ildotik ezartzen duen bezala; edo, bestela, bi emakidadunen artean eskubideen lagapenerako kontratu bat sina dezaten bermatuko du.

5. Azkenik, eragin ahal izan zaion kaltea zehazteko, kontuan izan behar dira industriaren izaera (irin-errota) eta normalki ustiatu ezina, presak askatutako ur kopurua gutxitzearen ondorioz. Gauzak horrela, kontuan hartu beharko litzateke errotak lehenago ateratzen zuen benetako etekina -eta ez hipotetiko-, eta hori erabili ezinik igaro duen denborarengatik biderkatu.

Zaila da kalte-ordaina kalkulatzeko metodo bat ezartzea. Edonola ere, kexagileak kalkulaturako egitate eta balioetatik abiatu beharko da, eta Administrazioak eta aprobetxamenduaren onuradunak datu horien aurrean egoki irizten dieten perituen txostenak aurkeztu ahal izango dituzte.

Kaltea erabat konpondu beharko da, eta azaleraturako kaltea nahiz lortu gabeko irabazi aintzat hartuko dituen kalte-ordaina ezarri; edonola ere, ez da aintzat hartuko etorkizuneko edo espero litezkeen kalteen ordaina.

Emakidak baliabideen baterako ustiapen zentzuzkoa kontuan hartuta ematen dira, eta emakidaren tituluak ez du bermatzen onartutako 100 litro/segundoko izango direla, TRLAren 59.1 artikulua jasotzen duenaren arabera; ura emakidaren tituluan esandako erabilerari atxikita geratzen da, eta ezin da zaio beste erabilera bati aplikatu (61.2. artikulua).

Bestalde, irin-errotari zerga-lizentziatarako erroldan baja eman izana ez da garrantzitsua, izan ere, baja hori irin-errota behar bezala erabili ezinak eragin baitzuen; horrela erabaki zuen Epaitegi Gorenak 1995ko azaroaren 8ko Epaian (RJ 1995\9163).

Gainera, konponketa edo ordainketa garaturako industriaren izaerari begiratuz egin behar da, egunean zortzi ordukoa izango zen lanaldian oinarrituta, eta ez kexagileak kalkulatzeko baliatu zuen hogeita lau orduko lanaldian; hala dio Epaitegi Gorenak 1995ko azaroaren 8ko Epaian (RJ 1995\9163).

Jaso ez duen industriako mozkina, berriz, enpresa jarduerak lortuko lituzkeen diru-sarreraren zati proportzionalaren arabera kalkulatu behar da. Honen antzeko



kasuetan, legeriak -esaterako, 2000ko Kontratuen Legeak, 151.4, 193.3 artikuluetan- industriako mozkina % 6an kokatzen dela dio.

Edonola ere, Ur Zuzendaritzak Gipuzkoako Uren Partzuergoaren aprobetxamenduaren ondorioz errotari eragindako kalte ekonomikoa zenbatu beharko luke, eta kalte-ordaina finkatu, kontuan hartuz presa 1989an eraiki zenetik, beharrezko emaririk ez zegoelako, burutu ezin izan zen jarduera ekonomikoaren egiazko kalteak, ez balizkoak.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**25/2002 GOMENDIOA, ekainaren 11koa, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari egina**

Egin beharreko izapide administratiboen ondoren, espresuki ebatz dezala kexagileak aurkeztutako ondarezko erantzukizuneko erreklamazioa, eta ordaina eman diezaiola Ibai-Eder presaren obrek haren errotan eragindako kalteengatik.

**26/2002 GOMENDIOA, ekainaren 11koa, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari egina**

Egiteke dauden izapide administratiboen ondoren, erabaki bat har dezala herritarrak urez hornitzeko Ibai-Eder presan aurreikusitako aprobetxamendua Gipuzkoako Uren Partzuergoari ematearen gainean.

Era berean, emakida ezartzen duen araubide juridikoan, zehazki adieraz dezala zein kalte-ordain ordaindu behar duen emakidadunak, hau da, Gipuzkoako Uren Partzuergoak, kexagileak irin-errotaren industria erabilpenerako lehendik zeukan emakidari ustez eragin zaizkion gaitz eta kalteen ondorioz.